

BERETERRETXEN KANTHORIA /EL CANTAR DE BERETERRETXE

Haltzak eztu bihotzik
ez gaztanberak hezurrik
enian uste erraiten ziela aitunen semek gezurrik.

Andozeko ibarra,
ala zer ibar luzea!
Hiruretan ebaki zaitan harmarik gabe bihotza.

Bereterretxek oheti
neskatuari eztiki:
Abil, eta so egin ezan gizonik denez ageri.

Neskatuak berala
Ikusi zian bezala:
hirur dozena bazabiltzala borta batetik bestera.
Jaun kuntiak berala
traidore batek bezala;
Bereterretx, aigü bortala; ützülirenen hiz berala.

Ama, indazüt atorra
Mentüraz sekülakua!
Bizi denak orit ükenen dü bazko gauerdi ondua.

Marisantzen lasterra
Bostmendietan behera!
Bi belañez herresta sartü Lakharri-Büztanobira.

Büztanobi gaztia,
Ene anaie maitia,
Hitzaz hunik ezpalinbada, ene semia juan da.

Arreba, ago ixilik!
Ez, otoi, egin nigarrrik!
Hire semia bizi bada, Mauliala dün juanik.

Marisantzen lasterra
Jaun kuntiaren bortala!
Ai! ei! eta, jauna, nun düzie ene seme galanta?

Hik bahiena semerik
Bereterretxez besterik?
Ezpeldoï altian dün hilik; abil, eraikan bizirik!

Ezpeldoïko jentia,
Ala sendimentü gabiak!
Hila han hüllan ükhen eta deüsere etzakienak!

Ezpeldoïko alaba,
Margarita deitzen dena,
Bereterretxen odoletik ahürkaz biltzen ari da.

Ezpeldoïko bukata,
Ala bukata ederra!
Bereterretxen atorretarik hiur dozena ümen da.

El aliso no tiene médula,
ni el requesón hueso;
no me figuraba que los hidalgos dijese mentira.

El valle de Andoce
¡vaya valle luengo!
Por tres veces sin arma me partió el corazón.

Berterretche desde el lecho
Suavemente a la criada:
Ve y mira si parece algún hombre.

La criada muy luego
según vió (responde),
que andaban tres docenas de una puerta a otra.

Berterretche desde la ventana
saluda al señor conde,
que tenía para él cien vacas, (con) su toro en pos.

El señor conde al punto,
como un traidor:
Berterretche, ven a la puerta; volverás en seguida.

-Madre, dame la camisa,
quizá la de para siempre.
quien viva se acordará de la posmedianoche de Pascua.

¡La carrera de Marisantz,
Bostmendieta abajo!
Arrastrándose las rodillas ha entrado en Bustanoby de Lacarry.

-Joven Bustanoby,
mi hermano querido,
si de ti no hay favor, se fue (se perdió) mi hijo.

-Calla, hermana,
no llores, te ruego;
si tu hijo vive, a Mauleón habrá ido.

La carrera de Marisantz
a la puerta del señor conde!
¡Ah, ah!, señor, ¿dónde tenéis a mi gallardo hijo?

- ¿Tenías otros hijos
que Berterretche?
Muerto está hacia Ezpeldoy; ve, levántalo vivo.

¡Las gentes de Ezpeldoy,
Cuán faltas de sentimientos!
¡Tener tan cerca un muerto, y nada sabían!

La hija de Ezpeldoy,
Que se llama Margarita,
sangre de Berterretche a manos llenas está recogiendo.

La colada de Ezpeldoy,
¡qué hermosa colada!
Cuentan que hay tres docenas de camisas de Berterretche

